

ELGERA

**ROBERLIN, ANTONIO,
BRYAN, IGOR ETA
ALEJANDRO** MUNDUAK MUNDU
BAKAR BIHURTZEN DIREN PUNTUA





- 3 Bilboko euskalgintza
- 4 Elkarrizketa
- 6 Inkesta
- 7 Normalkuntza
- 8 Erreportajea
- 10 Jarduerak
- 11 Literatura
- 12 Musika
- 13 Teknologia berriak
- 14 Ikuskizunak
- 15 Testa
- 16 Agenda
- 17 Denborapasak



aurkibidea

ELGERA^A 6. Zb. maiatza 2014



- 18 Auzoak
- 20 Lanbide Heziketa
- 22 Kirola



Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Rekaldeberriko BHI, San Adriango BHI, Eskurtze BHI, Unamuno BHI, Botikazar BHI, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Salesianos Deusto HLBIP, La Salle HLBIP, San Inazio BHI ikastetxea eta B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa. Koordinazioa: B01eko Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri Programa.

Inprimategia: Antza. Ale kopurua: 5.000. Webgunea: www.elgeraldizkaria.wordpress.com

Eskurtze BHI - Camila, Aratz, Brylin, Joseba eta Wen Chao

‘BADU BADA’ erakusketara bisitaldia

Euskara biziko da baldin eta hiztunak baditu, irakurtzen eta idazten bada, interneten badago, sakelekoan badarabilgu, abesten bada, jolasean eta atsedenean erabiltzen dadugu...

Martxoaren 25ean Eskurtzeko 3.mailako ikasleak Alondegira joan ginen ‘Badu Bada’ erakusketara. Erakusketaren helburua euskara mundu eleanitzearen barruan integratuta dagoela ikustea zen. Ez dakizuenontzat eleanitza hitzak hizkuntza askoduna esan nahi du.

Erakusketara oso interesgarria iruditu zitzaigun eta ikusitakoaren xehetasun batzuk aipatu nahi genituzke.

Erakusketaren gune batek Europa osoan gehien hitz egiten diren hizkuntzak modu grafikoan erakutsi zizkigun, hau da, puxikien

bidez. Beraien tamaina nolakoa zen ikusita adierazten zigun hizkuntzaren erabileraren maila. Gure harridurarako erabiliena ez zen ez txinoa, ezta ingelesa ere, ez! Errusiera zen, 278 milioi hiztun baititu. Gure euskarak, ordea, milioi bat iraguru.

Beste gelatxo batean Koldo Mitxelena hizkuntzalariaren honako hau irakurri genuen: “Egiatzko misterioa euskararen iraupena da, ez jatorria”. Benetan harrirituta geratu ginen hau irakurri ondoren. Ehundaka hizkuntza desagertu dira Iberiar penintsulan, gurea ez!

Horretaz aparte, beste hamaika

ideiaz jabetu ginen: euskara Europako hizkuntzarik zaharrena dela; latina Europa osoan zabaldua eta egon zela; euskal hiztunak estresa sufri dezakeela euskaraz egin nahi eta ezinagatik; jende askoren lana dagoela gaurko euskararen atzean (gau-eskolak, auzolana...) eta guzti horren gainetik, euskarak bizirik iraun duela.

Beraz, jarraitu behar dugu gure hizkuntza zaintzen, eta hori lortzeko ikasi, erabili eta maitatu behar da.

Gure ustez, euskalduna da euskara daukana, eta guk euskara eduki nahi dugu.



Ikasgela, munduak mundu bakar bihurtzen diren puntua

Eskurtze BHI - Tyrone Oliveira

Hitz asko egiten da etorkinez, kanpotarrez... baina ezagutzen ditugu? Horretan saiatuko gara, labur bada ere, Eskurtze institutuko DBHko 1go mailako ikasleok artikulu honetan.





Ni Tyrone naiz, 13 urte ditut eta 1go DBH ikasten dut Eskurtze institutuan. Brasilen jaio nintzen, baina Bilbon bizi naiz. Oraingoan, kazetari lana egitea tokatu zait.

Gure gelan 20 ikasle gaude, jende oso desberdina eta interesgarria, baina, honako honetan, urrunetik etorri garenon kontu eta historiak, hango eta hemengo esperientziak kontatuko ditugu.

Nire solaskideak aurkeztuko dizkizuet: Roberlin, Dominikar Errepublikatik etorria; Antoniok, Afrikan ditu bere arbasoak; Bryan, Venezuelakoa da; Igor, Brasiletik heldu zen; Alejandro, berriz, Boliviatik.

Denok hain desberdinak izanik, ikasgelan la-gun talde bat osatzen dugu, baina nongoak sentitzen zarete zuek?

Denok bat etorri gara erantzunean, leku bietakoak sentitzen gara. Familiakoengandik urrun egotea da zailena, telefonoa eta interneta dira komunikaziorako modurik errazena. Joatea garestia da, eta urte asko pasatzen dira ikusi gabe. Han eta hemen dago gure bihotza.

Zergatik joaten da pertsona bat bere herritik kanpora?

Alejandro: Ni adoptatuta etorri nintzen Bilboko familiarengana, nire herria oso pobrea da.

Igor: Nire kasuan, ama etorri zen Bilbora turismoa egitera eta bertan gelditu zen lanean. Urte batzuetara nire neba-arrebak ekarri zituen, eta beranduago ni.

Bryan: Venezuelakoa izanik, amona zeukan Bilbon lehenago etorrira, eta ama eta biak etorri ziren funeral batera. Harrezkero, hemen lan egin eta bizi dira.

Antonio: Nire ama Guinea Bissautik Madrilerara etorri zen eta handik Euskal Herrira.

Roberlin: Amarekin batera etorri nintzen, ama hemen lan egitera baitzetorren.

Eta nire kasua ere kontatuko dizuet. Ama bakarrik etorri zen lanera eta aita Sestaon ezagutu zuen. Brasilerara itzuli ziren biak eta ni han jaio nintzen. Beranduago hirurok Bilbora etorri ginen.

Nolakoak izan ziren hasierako hilabeteak eskolan?

Gehienok burlak izan genituen gure azalaren koloreagatik edota desberdintasunengatik. “Txokolate, beltza, itzuli zaitez zure herrira, zikin kolore...” eta antzekoak esaten zizkiguten. Galdera arrunta izaten zen “zu, zuria zara? Ez bazara, ez duzu jolasten”. Nork bere erara konpondu zuen arazoa. Batzuk, jenio txarra aterata, beste batzuk, norbere munduan sartuta, eta denok, astiro-astiro lagunak eginez.

Gaia aldatuz, nabaritu al dute zuen familiek krisia, lanik eza?

Bai, lehen supermerkatu arruntetan erosten genuen, eta 200 euroekin erosketa on bat egiten genuen, orain toki merkeagoetara joaten gara erostera, bestela ezin dugu ia ezer erosi.

Amaitzeko, nola eta non irudikatzen duzue etorkizuna?

Igor: Zinema zuzendaria izatea gustatuko litzaidake, munduko edozein.

Bryan: Zara Homeko langilea izatea gustatuko litzaidake.

Roberlin: Hizkuntzak ikasi nahi nituzke eta futbolaria izan.


Antonio: Karreretako pilotua izan nahi dut.
Alejandro: Heziketa Fisikoko irakasle ikusten dut nire burua.

Eta nik? Niri lau horma eta sabaia izatea gustatuko litzaidake, unibertsitatera joatea...



Hurrengora arte lagunok, eta ez ahaztu! Mundua handia da, baina bat bakarra!

Ibarrekolanda BHI - Umorez talde feminista



ASIER RODRIGUEZ

Jendea gero eta kontzientziatuago dago, gazteok batez ere. Garai-pena gertu egon arren, bide luzea dugu aurretik.

SELENE VARELA

Nahiz eta ezberdintasuna nabaria den oraindik, gizartea -gazteok batez ere- geroz eta kontzientzia handiagoa hartzen ari da eta genero berdintasunaren aldeko borrokkak indar gehiago hartu du azken boladan.



OIHANE DIEZ

Nahiko "atzeratua". Badago jendea nahiko ondo dagoela uste duena baina egia esan gauza pilo falta dira egiteko. Askok ez dute ezer ere egiten euren pribilegioak galtzeko beldur direlako edo "ez zaielako interesatzen". Hala ere, gero eta jende gehiago dago berdintasuna lortzeko borrokatzen.




MIRENE GONZALEZ

Gaur egungo gizarteak berdintasunaren aldeko itxura ematen du, baina egia esan berdintasunetik oso urrun dago.



GUILLERMO RANERO

Jendeak feminista dela esaten du feministak izan gabe. Hau da, teorian, paperaren gainean denak dira oso feministak baina gero praktikan duten jarrera guztiz matxista da, eta hori eguneroko bizitzan ikusten da islaturik.



MIKEL URIA

Gero eta jende gehiago konturatzen ari da arazoaren larritasunaz eta horrek berdintasun osoa lortzeko borroka dakar. Gizartea gero eta gehiago kontzientziatzen ari da horretaz, iraultza morala behar da.



Arte Ederretako Museoa: Markus Lüpertzzen erakusketa

Unamuno institutuan gelaz kanpoko jardueren artean bisitak daude, museoak, besteak beste. Horrela joan izan gara Sorolla, Antonio Lopez eta Nestor Basterretxearen erakusketetara. Oraingoan Markus Lüpertzzena ikusi dugu.

Martxoan 2. mailako ikasle guztiok Markus Lüpertzzen erakusketara joan gara. Bisitan gauza asko ikasi ditugu bai arteari bai artista honi buruz, gidari baten azalpenei esker. Amaitu eta gero tailer bat egiteko aukera izan dugu.

Markus Lüpertz margolari, eskultore eta idazle alemaniarra da, eta era oso pertsonalean eta espontaneoan egiten du lan. Erakus-

ketan ikusi eta azaldu ziguten bezala, artistak obra abstraktoak egiten ditu nahiz eta artista oso klasikoa izan. Bere eskultura eta pintura gehienetan giza gorputza edo aurpegiak agertzen dira, baina berezitasun batekin: gorputz atalak handitu eta apurtu egiten ditu, hau da, deformatu. Bere artelanak *ditirambo* hitzarekin definitzen ditu. Bilbon bertan, Abandoibarra ibilbidean 2000. urtea

geroztik Lüpertzzen *Judith* izeneko eskultura ikus dezakegu.

Lüpertzzen hainbat margolanek natura hila irudikatzen dute, baina ontzi eta frutak marraztu beharrendan hildakoen buruhezurrak eta antzekoak erakusten ditu kolore biziz eta marra indartsuz. Artista honen margolanen beste berezitasun bat zuri beltzez margotutako basoak dira, kolore biziz inguratutako hesiez, eta honela irudikatzen du gizakion portaera naturaren aurrean, gizakion erruz hesi baten barruan bezala daudela irudikatzeko.

Beste artista batzuen artelanetatik ere ideia nagusiak hartu eta plagiatu egiten ditu, beti ere interpretazio oso pertsonalean. Adibidez, New Yorken Warholek lau koloretan egindako Marilyn Monroeren erretratua, kopiatu eta bere eran aldatu zuen. Azken batean, berarentzat, artearen helburua mezua da, originalean zein kopian.

Erakusketa ikusi eta gero, tailer bat egiteko aukera izan dugu. Hau da zalantzarik gabe, jarduerarik dibertigarriena; ordu batez eskultore edo pintore baten artelana irudikatu genuen. Kasu horretan altzairuz eta koloretako paperez eskulturak eta margoan egin genituen.



Danimarkan Comeniusekin

Kurtso hasieran Comenius proiektua proposatu ziguten. Esan zigutenez, lehenengo aldia izan da horrelako proiektu bat hiruhilekuna ez den klase batean egiten dena. Zozketa baten ondorioz gure klaseari tokatu zitzaion parte hartzea.

Proiektu hau Europako hainbat herrialde-tako institutuek osatzen dute; Alemania, Danimarka, Suedia, Italia eta Guk Geuk. Bi urteetan herrialde horietan topaketa batzuk egitean datza; Guk, adibidez, immigrazioaren eta giza eskubideen gaiak jorratu ditugu. Baina proiektuan klase osoak parte hartzen duen arren, topaketa bakoitzera joateko bost edo sei ikasle aukeratu behar dira; gure kasuan Euskal Herrian immigrazioaren inguruan zuten ideiekin lan bat egin behar izan genuen Danimarka eta Suediara joan ahal izateko.

Danimarkan eta Suedian kokatu den proiektu honetan, immigrazioari buruz hitz egin dugu; zehatz mehatz, herrialde bakoitzeko alderdi politiko nagusiek (PP, PSE, EAJ, BILDU, EZKER BATUA, UPyD) immigrazioarekiko dituzten puntu nagusienak bildu genituen eztabaidatzeko, Siriatik, gerra zibilaren ondorioz, Europara zetozen 50.000 errefuxiatuekin zer egingo genukeen. Beraz, ikasleok Europako Parlamentuan egongo bagina bezala gure taldearen (ALDE, EFA, EPP...) interesak defendatu behar genituen erreferendum bat eginez, gero besteen aurrean gure proposamena aurkezteko. Gainera, hau guztia egin baino lehen Danimarkako bi politikari Siriak arazoari buruz debate bat egitera etorri ziren.

Proiektuaren lehen topaketa Bilbon izan zen, abenduan. Hasieran, ez genekien ezer proiektuaz, laster ohitu ginen eta herrialde ezberdinetako jende asko ezagutu genuen; gainera, lau herrialde horietako ikasleak gure

etxeetan geratu ziren lau egunez eta immigrazioari buruzko bideo bat egin genuen elkarrekin.

Apirilaren batean gutariko batzuk Suediarantz abiatu ginen eta Danimarkara beste batzuk. Hango ikasleen etxeetan kokatu gintuzten, egia esan, bizi ginen lekuetatik hirietara, autobusez zein metroz 30 minutu baino gehiagora zeuden. Era askotako jendea zegoen, batzuk oso atseginak eta beste batzuk ez hainbeste, baina gehienak edozein momentutan laguntzeko prest.

Oso ondo tratatu gintuzten, lehenengo egunean, Helsingoreko ikasleek hondartza ikustera eraman gintuzten, baita bertan dagoen Hamlet gaztelua ezagutzera ere, Shakespearearen *Hamlet* obra gertatzen den tokia, hain zuzen. Helsingborgenekoek herritik *sightseeing* (bisitaldia) bat egitera eraman gintuzten. Azken egunean guztiok elkarrekin afaldu genuen, janaria oso desberdina egin zitzaigun. Beste alde batetik, hango bizimodu maila oso altua dela ikusten da; badirudi bertako biztanleek zerga asko ordaintzen dituztela, baina hori gero islatzen da gizartean, adibidez, ikasteagatik ikasleei hilero 400 euro ordaintzen dizkiete.

Azkenik, esan dezakegu oso esperientzia ona bizi izan dugula eta herrialde ezberdinetako lagun asko egin ditugula bidaia honetan. Espero dugu honelako beste bidaia bat errepikatzeke aukera berriz ere edukitzea institutua bukatu baino lehen.



‘Norabide guztiak’ antzerki foruma

Otsailaren erdialdean San Inazio BHI institutuan Baketik fundazioaren eskutik Antzerki Foruma programan parte hartu genuen. ‘Norabide Guztiak’ du izena programa horrek eta, izatez, Trafiko Zuzendaritzak antolatzen du. DBHko 3. eta 4. mailako ikasle guztiok izan ginen bertan.

Antzerki Foruma hiru zatitan banatuta zegoen. Lehenengoan, 25 bat minutuz, mugikortasun seguruarekin zerikusia duen zorigaiztoko istorio bat kontatu ziguten. “Neska-mutil talde bat borda batean egingo den jaialdi batera doaz. Gaua bertan eman-go dute eta denek dute etxeko baimena, batek izan ezik. Hau etxera bueltatu behar da iluntzean. Jaiaren gozoan autobusa hartzea ahazten du. Taldeko mutik batek, antza mozkortuta ordurako, eramango duela dio. Neskak, azkenean, amore ematen du eta biak abiatzen dira. Bidean istripua izaten dute eta neska elbarri ateratzen da.

Bigarrean, antzezpena bukatu ondoren, moderatzaileak ikuslegoari galdetu zigan istorioaren zein elementu alda zitekeen amaiera positiboago batera bideratzeko. Oso interesgarria izan zen eta guk gogotsu parte hartu genuen eztabaidan, bakoitzak bere iritzia eman nahian.

Hirugarrenean, ‘errealitate-entsegu’ metodoan aritu ginen eta egoera berriz antzeztu genuen ikasleok. Egoera berdinen aurrean erantzun ezberdina eman genuen eta horri esker istorioari amaiera ona ematea lortu genuen.

Egia esan, asko dibertitu ginen eta gauza asko ikasi genuen: talde presioa zer den, horri zelan egin aurre, zein inportantea den ezetz esaten jakitea, lagunak babestu behar ditugula, droga eta alkoholarekin izan behar den arreta eta, batez ere, hartzan ditugun erabakiek ondorioak dakartzatela, batzuetan larriak izanik.

Baketik fundazioak beste programa batzuk aurkezten ditu beste gai batzuk jorratzuz: indarkeria saihestea eskolan, harreman afektiboen errespetua, elkartasuna... Polita izango litzateke hurrengo batean ere antzerki forum batean esku hartzea.



Salesianos-Deusto
Oihane Moral eta Iker San Emeterio



LIBURUAK PROTAGONISTA

Artikulu idazleak Mikel Valverderekin

Apirilaren 2an, Hans Christian Andersen idazlearen jaiotegunean, Haur eta Gazteen Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu zen.

Hori dela eta, Salesianos-Deuston hainbat jarduera ezberdin izan genituen.

Haur Eskolakoei (0-2 urte) 1. zikloko(LH) ikasleek irakurri zizkieten ipuinak.

Haur Hezkuntzako geletan guraso batzuk arduratu ziren ipuin kontaketaz.

Lehen Hezkuntzan, Gabonetako oporrak hartu genituenean Olentzero pasatu zen klasez klase eta ikasle bakoitzaren-tzako liburu bat utzi zigun. Apirilaren 2ko ekintzak liburu horien ingurukoak izan ziren.

1. zikloan *Nikolas eta botila*, *Bensuf erlojugilea* eta *Krokodilo bat nire logelan* liburuaren animazio tailerra izan zuten.

2. ziklora *Nola zuzendu andereño gaizto bat* eta *Izar bat zopan* liburuen idazlea etorri zen: Miren Agur Meabe.

3. zikloara *Skaterrak* bildumaren idazlea etorri zitzaigun: Mikel Valverde.

Hurrengo egunetan, Irakurketa Klubekoek ebaluazio orri bat pasatu ziguten ikasle guztioi. Hor, gure iritzia emateko aukera izan genuen. Arrakastatsuak izan ziren ekintza guztiak!!!

Esan Ezetz!

Beñat, Markel, Andoni eta Iker dira San Inazioen sortu berria den musika talde honetako partaideak. Auzoan hasi eta hezi dira.

Aupa! Gu Ezetz! taldea gara, San Inazioko beste musika talde xume bat. Beñat Garcia (bateria), Markel Montañok (gitarra eta ahotsa), Andoni Herranzek (baxua) eta Iker Gutierrezek (gitarra) osatzen dugu. Jotzeko gogotsu gabiltza onak izan ez arren. Akorde erraz batzuk sortzen ditugu, baina ez dakigu zer eta nola egin gustukoak izateko. Hala eta guztiz ere, ez ginateke pozik egongo, hori soilik lortuko bagenu. Gure helburuak ondo pasatzea eta burmuin batzuk martxan jartzea dira, baina aurrena ondo pasatzea, primeran dakigulako tontolapikoz betetako inguru honetan burmuinak piztea zailegia dela.

Kontu hau bat-batekoa izan zen. Egun batean hitz egiten hasi ginen, talde bat eratzea denborari onura ateratzeko eta, musika gogoko genuenez, gozatzeko ere. Bageneuzkan, bateria bat eta bi gitarra, baina oraindik ahots bat behar genuen. Orduan egun ba-

tean entsegu bat egitera joan ginen, Andoni ahotsa bezala, eta Beñat, Iker eta Markel bere instrumentuekin. Denbora pasa ahala, Andonik baxu bat erosi zuen eta ikasten hasi zen, eta orduan Markel abeslari eta gitarra izatera pasatu zen. Denborarekin ere iritsi gara gaur egun garena izatera: lagun talde bat ondo pasatzeko gogoarekin.

Musika erraza jotzen dugu. Erritmo sinpleak, baina letra onak. Kortatu, AC/DC, Eskorbuto, The Clash, Piperrak, The Ramones, Sex Pistols, Oliba Gorriak, Nirvana, La Polla Records, Led Zeppelin, Negu Gorriak, The Who... eta horrelako taldeak dira gure sormenaren abiapuntu. Gure abestiak ere sortzen hasi gara, baina hori egiten dugun bitartean, gure gustuko taldeen abestiak jotzen ditugu.

Oraindik oso gazteak gara, 15-16 urteko mutikoak, eta badakigu asko falta zaigula ikasteko eta bizitzeko. Gure auzoan hasi eta hezi gara, kaleko ume bilakatuz, horregatik gure abestiak kaleetako eta eguneroko bizitzako arazoetan eta amorruetan oinarritzen dira.



uriola

uriola.info

Bilbon informazioa euskaraz, digitalean eta auzolanean zabaltzen duen hedabide baten falta zegoela ikusita uriola.info sortu dute *Berton*, *Prest!* eta *Bilbo Hiria Irratia*-k, *Tokikom*-en laguntzarekin.

Tokikomeko presidente kargua utzi berri duen Mikel Irizarrek parte hartu zuen Uriola plataforma berriaren aurkezpen ekitaldian eta, azpimarratu zuenez, “gaurkoa oso data pozgarria da guretzat, Tokikomentzat estrategikoa baita Bilbo bezalako hiriburu batean tokiko hedabide indartsu bat egotea”. Berton eta Prest! aldizkariak edota Bilbo Hiria Irratiak “lan handia eta beharrezkoa” egiten dutela adierazi zuen, baina Uriola “pauso bat harago” doala nabarmendu, hiriko euskaldun guztiei komunikazio tresna “paregabea” eskaintzen dielako.

Prest! eta Berton aldizkarietako arduradun Lur Malleak eta Bilbo Hiria Irratiko Jabi Zabalak eman zuten webgunearen ezaugarrien berri eta, esan zuten, izaera “irekia eta parte hartzailea” izango du. Hala, erredakzioak landutako gaiez gain, erabiltzaileek bidalitako edukiei ere tarte egingo diete.

“Uriolaren zeregina ez da soilik albisteak ematea, baizik eta Bilboko euskaldunak animatzea, kontatu behar dutena kontatzea. Hori da modu bakarra Bilbo bezalako hiri handi batek eman dezakeen informazio guztira heltzeko”, adierazi zuten.

Azken asteotan komunikazio plataformaren sustatzaileak eragile eta norbanako desberdinei aurkeztu diete proiektua, eta haietako asko ageri dira jada partaide gisa: konpartsak, elkarteak, mendi taldeak...

Dena den, proiektuaren arduradunek adierazi dute atea zabalik jarraituko duela eta parte hartu nahi duenak webgunean erregistratzea baino ez daukala.

uriola.info

@uriolainfo

www.facebook.com/uriolapuntuinfo

bilbokouriola@gmail.com

Hiriko eraikin adierazgarrietako bat sakonki ezagutzeko

La Salle Bilbao Ikastetxea - Paula Martin, Jone Iraragorri eta Sofia Tobio

Bideoklipak grabatzen

La Salle Ikastetxeko DBHko hiru ikasle gara. Aurten, ikasturte hasieran, plastika eta musika irakasleek lan berezi bat egitea proposatu ziguten, drogei buruzko bideoklip bat grabatzea, alegia.

Bideoklipen oinarri musikala aukeratzeko hiru pertsonako talde txikietan banatu gintuzten eta talde bakoitzak abesti bat proposatu zuen. Jarraian, zenbait irizpide kontuan hartuz, lau abesti aukeratu genituen, lau bideoklip ezberdin egiteko. Talde txiki bakoitzari abesti bat egokitu zitzaion eta abesti horrentzako letra berri bat asmatu genuen, drogei buruzkoa.



Letra guztien artean gure irakasleek aukeratu zuten egokiena, abesti bakoitzeko bat. Guztion artean letra hobetzen saiatu ginen. Ezinezkoa dirudien arren, oso denbora gutxian letra ikasi eta estudio batean abestiak grabatu genituen, oinarri musikari gure letra eta gure ahotsa jarritz. Grabatzea oso esperientzia positiboa izan zen. Estudioa ikaragarria izan ez arren, behin barruan kasakoak jantzita grabatzen ari ginela egiazko musika talde bat bezala sentitu ginen.

Bideoklipa grabatu aurretik eman behar izan genuen azken pausoa bideokliparen gidoi teknikoa egitea izan zen. Hau egiteko lau talde handitan banatu ginen. Bideoan ikusiko

zena paperean idatzi genuen, gidoi teknikoa osatuz, eta funtzioak banatu genituen, talde artistikoa eta talde teknikoa bereiziz.

Azkenik, gure bideoklipa grabatzeko garaia heldu zen. Horretarako BBK-k Sukarrietan daukan egoitzara joan behar genuen, Zinema Astea delako programan parte hartzera. Ikasle asko garenez eta guztientzako lekurik ez dagoenez, bi taldetan banatu behar izan genuen, txanda bakoitzean 45 ikasle joanez. Txanda bakoitzeko bi bideoklip grabatu genituen.

Sukarrietan talde bakoitzeko bi begirale genituen eta gurekin egoten ziren bideoak grabatzen eta tailerrak egiten. Lehen eguna aspergarriena izan zen, grabaketa bat nola egiten den irakatsi behar zigutelako eta gure grabaketa planifikatu behar zelako. Baina bigarren egunetik aurrera, grabatzen hasi ginenean, aspergarria izateari utzi zion. Lau egunak oso azkar pasatu ziren. Hurrengo goizean bideoklipen estreinaldia izan genuen eta hainbeste lan egitea merezi izan zuela ikusi genuen.





Hizkuntza eta zu

1.- Lehen aldia zelakoa izan zen?

- a. Ez naiz gogoratzen
- b. Arraro samar sentitu nintzen
- c. Oraindik ez naiz ausartu

2.- Euskara animalia izango balitz...

- a. Betizua
- b. Boa
- c. Ornitorrinkoa

3.- Zuretzat diglosia da...

- a. Buru gaixotasun bat
- b. Heste meharrean dagoen zerbait
- c. Ez dakit zer ote den

4.- Larrutan hasi zara Torontotik heldu berri den zure bikotekidearekin. Hasperenka ari dela, proposatzen dizu zerbait lizuna esan diezaiozun...

- a. Jakina naturaltasun osoz
- b. Eskatzen didan moduaren arabera
- c. Ez zait ateratzen

5.- Bete ezazu: maita nazazu gutxiago...

- a. eta goza nazazu gehiago
- b. eta goazen ohera oraintxe bertan
- c. eta gorrota nazazu gehiago

6.- Ba al dakizu nor den Itxaro Borda?

- a. idazlea
- b. aktorea
- c. Ez dakit

7.- Bete ezazu: gau eta egun...

- a. Euskaraz bizi nahi dut
- b. Gaupasan lagun
- c. Paso del euskara

8.- Euskaraz hitz egiteak duen onena da...

- a. Nahi beste ligatzen duzula
- b. Eusko Jaurlaritzan lan egin ahal izatea
- c. Ba al du ezer onik?

Zortzi galdera hauei erantzun eta gero, kontsulta itzazu azpiko koadroko emaitzak...

EMAITZAK

- Gehienak **c** badira: txarto konpontzen zarete zu eta euskara. Euskara zuretzat astuna da edo, besterik gabe, euskaraz paso egiten duzu.
- Gehienak **b** badira: euskararekin harreman ona duzu. Baina ez zaude guztiz ase. oraindik ez zara ausartu pausoa ematera. Fidatu zaitetz apur bat gehiago euskararekin: lasai, ikusiko duzunez ez zaitu abandonatu behar.
- Gehienak **a** badira: loteria egokitu zaizu. Euskaraz natural-natural bizi zaren horietakoa zara baina ez ahaztu, errebeldia apur bat ondo dator beti.

Kultur ekitaldiak

EÑAUT ELORRIETA

Noiz: 2014-05-29/ 20:00

Non: Arriaga antzokian

Sarrerak: 12/15□



RULO Y LA CONTRABANDA

Noiz: 2014-05-16/ 20:00

Non: Campos Eliseos antzokian



'JAINKO TXIKI ETA JOSTALARI HURA'

Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Bingen Mendizabal eta Mikel Valverdek, Kirmen Uriberen bertsoei musika jarriko diete.

Noiz: 2014-05-17

Non: Kafe Antzokian

Sarrera: 10□



BARRUTIROCK: YEAH ALL (POP) + 180GR (ROCK)

Noiz: 2014-05-22

Non: Bilborock aretoan

Sarrera: doan



IRON MAIDEN

Noiz: 2014-05-29

Non: BECen

Sarrera: 50-90□



BARRUTIROCK: HORROR MOVIE TRAILER + SHRAPNEL MEAT (METAL)

Noiz: 2014-06-05

Non: Bilborock aretoan


Sarrera: doan

SKID ROW ETA BUCKCHERRY

Noiz: 2014-06-19

Non: Santana aretoan

Sarrera: 28□



GURUTZEGRAMA Euskal musika taldeak

Zeharretara

- 3. Mundu berri baten mapa. Arnasestuka
- 5. Gure ereserkia. Muxurik muxu
- 9. Sarri sarri. Zu atrapatu arte
- 11. Kristal kolpatuak. Amets bat
- 12. Maria Kristina. Urrutik kantu
- 13. Begietan. Ez zaudenetik

Goitik behera

- 1. Nostalgia. Mezulari izan nahi dut
- 2. Guregatik. Irribarre batekin. Esaidazu
- 4. Nazkatu naiz. Mugatutako gauak
- 6. Milaka izar berri. Sweet Mary
- 7. Udarako gau luzeak. Egunero
- 8. Lau teilatu. Espaloian. Marea gora
- 10. Bixotza suten. Gabak zerueri begire


LETRA-ZOPA

Aurkitu gure baratzean dauden barazkiak

BERAKATZ - AZENARIO - LEKA - TIPULA
PIPER - PORRU - TOMATE - URAZA - ZERBA

N T W Z B Q A E B S F Z K Z Z
B J W E H U K U E J W L I E S
O L M Y R S T R R F O L G V V
R S F R Q J L V A I W I B H J
B N O F A D O O K S W B H T B
A P S L S G W X A V U C Z I P
W Z V E X J L G T F Z W F P B
S J E Y G G T A Z R D N P U K
R T P N V P U B G E T G Q L Z
M E A D A E W D Z W M K F A E
M X P M I R T G I H W U S K R
N G Q I A C I A A Z A R U A B
P L G K P D H O M H X R M S A
D Y E X O F X P G O E L E F O
M L N Y D U Y A D H T E O I P

LABIRINTOA Bilatu irteera!



Rekaldeberriko BHI
Batxilergoko 2. mailako ikasleak
Argazkilaria: Giovana Prado

Betiko Errekalde



Errekaldeberri auzoa bisitatzera gonbidatzen zaituztegu

Bilboko 7. barrutia da. Bost auzo-tan banatzen da: Ametzola, Irala-barri, Errekaldeberri, Uretamendi eta Iturrigorri. Antzinako Elgera erreka zegoen tokian eraiki da auzoa. Gaur egun erreka horrek lurpeko ibilbidea egiten du Ibaizabal ibaiarekin batu arte.

Bilboko langileri eta Espainiatik lan bila etorritako hainbat pertsonen jomuga izan zen Errekalde XX. mendean.

Plangintza ezak eraginda, A-8 autobideak bitan banatzen du auzoa; etxebizitzak autobidea baino lehenago eraikitzen hasteagatik, etxebizitzetako askok, ondo-ondoan dute autobidea.

Azken urteetako lan handiek barrutia eraberritu dute. Batetik, RENFEk Trenbidearen etorbidean zeuzkan trenbideak lurperatu dira eta bere toki batean etorbide berri bat eraiki da.

Errekaldeberri mendiz inguratuta dago, horregatik mendira joatea eta naturarekin kontaktuan egotea oso erraza da.

Gure auzoa zerbitzuz beteta dago eta oso ondo komunikatuta.

Aisialdirako leku zabal eta handi asko daude. Jende atsegina eta eskuzabala dago. Auzo honetako

plazarik esanguratsuenaren Errekaldeko plaza da. Umeek, eskolatik irten eta gero bertan jolasten dute. Gaztetxe klub asko daude umeak eta gazteak aspertu ez daitezten.

Kukutza gaztetxea oso garrantzitsua izan zen Errekalderentzat. Adin desberdinetako neska-mutilak joaten ziren hainbat ekintza egitera. 2011ko irailaren 23an eraikuntzak egiteko asmoz bota zuten, baina bota ondoren lekua hutsik geratu da, mugimendu gabe.

Auzoko kiroldedia El Fango da.

Eliza

Errekaldeko eraikin garrantzitsuenetariko bat eliza da. Izan ere, bertan, hainbat gaztek parte hartzen dute denbora libreko taldeetan, hala nola, Errekaldeberriko Eskautak eta Agintza elkarteak.

Igogailua

Argazkietako batean Errekaldeko plazaren eta osasun zentroaren artean egindako igogailua ikus dezakegu. Igogailu honek Errekaldeko itxura eraberritzeaz gain, auzokideen bizimodua asko erraztu du, igogailua eraiki baino lehen, instituturaren edota kiroldegira joateko Larraskitu izeneko kale luze eta aldapatsua igo behar

baizten. Orain, aldiz, igogailuari esker botoi bat sakatu baino ez da egin behar. Gainera, Errekaldeko goiko zonaldeari bizitza eman dio, Puntu Beltza deituriko zonaldeari bukaera emanez.

Zaharren egoitza

Egoitza duela bost urte eraiki zen erabili barik eta zaborrez beterik zegoen orube batean. Egoitzak oso eginkizun garrantzitsua betetzen du Errekalde ez zegoelako antzeko zerbitzurik eskaintzen zuen erakunderik. Honez gain, auzoko izkina honi mugimendua eman dio eta behingoz bertan dagoen parkean jendea ikusten da, nahiz eta oso gazteak ez izan.





Mila koloreko ostadar batean bizi nahi dugulako

Hemen gaudenak Botikazar BHIko Gizarte Integrazioko ikasleak gara. Denak desberdinak, ez dagoelako bi arima berdinik, nork bere beharrak dituelako.

Denak pertsonak garen aldetik, berdin adinekoak edo gazteak, hangoak edo hemengoak, gaixotasun zein arazoekin, gizonak zein emakumeak; eskubide eta aukera berdinak izan beharko genituzke.


Hori bermatzeko, norbanakoaren egoera eta premien arabera laguntza eskaintzea, gizarteratzeko ateak irekitzea eta gizarte oro sentibilizatzea izango da gure lanaren ardatza.



Profesionalki garatzeko, batetik, pertsonaren beharrak identifikatzen, komunikatzeko sistema ezberdinak ezagutzen eta besteen ikuspuntua hobeto ulertzen lagunduko diguten irizpideak lantzen ditugu. Eta bestetik, egoera eta beharrak baloraturik irtenbideak bilatzeko tresnak eskuratzen ditugu.

Guk honetan sinesten dugu, horregatik ari gara gizarte integrazioa ikasten. Etorkizun duin bat izan dezagun, mundu berri bat posible izan dadin eta gure bihotzak handitu daitezten.

Erle bakar batek ezin du eztirik egin, baina erlauntza bateko guztiak batuz gero nork gelditu ezti-iraultza?



San Adriango BHI
Andoni Gonzalez



Aitziber Alonso

Taekwondoa zainetan

Aitziberrek San Adrian BHI n ikasten du, DBHko 4. maila. Askok ez dugu haren ibilbidearen berri, ezta ikaskide askok ere. Harekin izan gara eta ikuspegi interesgarria eman digu. Ezagut dezagun, bada.

Zer dela eta hasi zinen taekwondoaren munduan?

Gimnasia artistikoa egiten nuen hasieran, baina nire lagun batek inbidia eman zidan eta amari eskatu nion aldatzeko eta taekwondoan sartzeko.

Zenbat urte daramazu?

Bederatzi urte daramatzat. Zortzi urte nitueanean hasi nintzen eta ordutik jo eta ke aritu naiz.

Zenbat ordu entrenatzen duzu astean?

Astean hiru egunetan entrenatzen dut. Astearte eta ostegunetan ordubete eta laurden eta ostiraletan ordu eta erdi bat. Dena den, entrenatzaileak dio ikasketek dutela lehentasuna eta batzuetan ez naiz joaten, gutxitan bada ere.



Zein gerriko janzten duzu?

Gaur egun gerriko beltza daramat, baina laster, maiatza aldean edo, 2. DAN ateratzeko asmoa daukat. Horrela, irakaslearen laguntzailea izan naiteke.

Aurten zein txapelketatan ibilia zara eta nola baloratuko zenituzke emaitzak?

Aurten Euskaditik kanpoko lehiaketa batean egon naiz, Benicassinen, eta laster Marina D'Orera joango naiz. Euskadiko lehiaketetan Senior kategorian bigarren geratu naiz eta Junior mailan lehenengo. Horri esker, Espainiako lehiaketara joan naiz, Pontevedrara, baina ez dut zorte handirik izan, maila izugarri ona baitzen.

Zure etorkizuna, kirol munduari lotua ikusten duzu?

Hori espero dut. Taekwondoa irakatsi nahi nuke edo, bestela, kirol irakasle aritzea eskoletan. Faturan erdi mailako ziklo bat egiteko asmoa daukat, eta gero, ahal izanez gero, goi-mailakoa.

Zergatik gomendatuko zenuke kirol hau egitea?

Beti ona da edozein kirol egitea, baina Taekwondok defentsa pertsonala eta teknika berriak irakasten ditu. Gainera, borroka gustatzen ez bazaizu, teknikako Taekwondoa egin dezakezu, edo alderantziz.

Bertso bi ikasketei

Doinua: *ETAren su-etenetik*



Deustuko Ikastolatik
 ICra salto arraro
 hantxe ikasi nuen ta
 nahiko gustura luzaro
 gutxi falta udarako
 argi dut hori zeharo
 baina 2.mailari
 diot beldur handiago
 bertan izango baikara
 gu liburuen esklabo
 baina gauza bat aitortu
 behar dut argi ta klaro
 ikasturtea amaitzeko
 irailetik ni zain nago

Ander Anakabe

Eskertzeko bertsoa da
 euki baidugu aukera
 ikasi gozatu eta
 txikia ginen antzera
 baina etapa luze honek
 orain dauka bukaera
 gure indarrak neurtuta
 azterketa bakarrera
 protestatu nahiko nuke
 honi emanaz amaiera
 emaitza bat ote naizen
 egiten dut nik galdera
 eta honen kontra gazte
 atera zaitez kalera

Markel Baroja

uriola.info

Bilbo sarean

Bat egin gure hiriko berriekin
digitalean, euskaraz eta auzolanean!

f uriolapuntuinfo

🐦 @uriolainfo

✉ bilbokouriola@gmail.com

☎ 94 447 10 42

Parte hartu eta sartu komunitatean!

Uriola.info-k hainbat informazio emari ditu.

- 1. Zuk (zuek) sortutakoa.** Norbanakoek euren kabuz bilbotarrei helarazi nahi dieten informazioa.
- 2. Uriola.info-k sortzen duena.** Bilbon ematen diren pren-tsaurreko, ekitaldi, egitasmo eta berrien zabalkundea.
- 3. Kanpo blogak eta web orrialdeak.** RSS bidetako lotura izango dute uriola.info-rekin.
- 4. Bilboko euskarazko hedabideen informazio jarria.** Bilboko hedabide ezberdin ugari dira uriola.info sortzen dutenak eta horien guztien informazioa plataforman kontsumitu daiteke zuzenean. Adibidez, BERTON eta PREST! aldizkariak eta BILBO HIRIA IRRATIAk argitaratutako oro.
- 5. Sare sozialetatik (Facebook eta Twitter) datarren informazioa.**

Nortzuk dira kideak? Nortzuk erabiltzaileak?

- Erabiltzaileak. Izena edo ezizena eman ostean, argitaratutako albisteetan erantzuteko aukera izango dute, baina bestelako edukirik gehitzeko aukerarik ez dute izango.
- Kideak. Izen-abizena duten erabiltzaileak dira, anonimoak ez diren norbanako edo taldeak. Horiek, argazkiak, artikulua, iruzkinak eta bestelako edukiak gehitzeko aukera izango dute, baita erantzunak emateko ere.

Zer egin kide egiteko eta edukiak gehitzeko?

- Sare Sozial bidez. Sortu zure erabiltzaile profila eta, ondoren, lotu kontu hori sare sozial batekin (Facebook edo Twitterrekin). Sare sozial horietan kontua baduzu, automatikoki agertuko zara 'kide' moduan sare horretan dituzun datuekin (argazkia eta izen-abizenak).
- Kide izaera eskatuta. Bete uriola.info-n, Sartu atalean, zure datuak: izen-abizenak, biografia... eta igo zure argazki bat. Ondoren, zure profilean eskatu uriola.info-ri kide izaera. Kudeatzaile batek ziurtatuko du benetako datuak eman dituzula eta eskaera onartuko dizu. Hortik aurrera, zure iruzkinak, argazkiak, bideoak... edo zure kanpoko bloga uriola.info-ra lotzeko aukera izango duzu.

Behin izena emanda edozer esan dezaket?

Ez, noski. **Gogoratu arau simple hauek:**

- BAT. Uriola.info-n parte hartzeko erregistratu beharra dago. Alegia, erabiltzaile bihurtu.
- BI. Erantzunetan edo bestelako ekarpenetan, uriola.info-k akusazioak eta irainak ez ditu onartuko. Halakoak baleude, uriola.info-k kentzeko eskubidea dauka.
- HIRU. Testua euskaraz idatzi behar da. Bestela, uriola.info-k kendu egingo du.

